

MARTXOZ GEROZTIK AUZITEGI MEDIKUAK GREBAN

Ez dugu utziko gatazka hiltzen!!!

Aurtengo martxoaz geroztik astero egin izan ditugu hainbat eta hainbat protesta ekintza. Batzuetan oihartzun handiagoarekin beste batzuetan baino, baina agertu izan gara hedabideetan.

Aspaldi honetan ez prentsa idatzian ezta telebistan ere ez agertzeak ez du esan nahi Eusko Jaurlaritzak gure errebindikazioei jaramon egin dienik edo guk borrokari uko egin diogunik. Aldiz, oso bestelakoa da errealitatea.

Gure errebindikazio taulak honako hiru elementu ditu:

1. Guardia osteko deskantsua. Europar araudia betetzeaz gain, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko langile guztientzat eredu bera.
2. Benetako beharrianak aintzat harturik prestakuntza plana osatzea, medikuntzako azken aurrerapenei egokiturik eta kalitatezko zerbitzua helburutzat harturik;
3. Osakidetzako medikuek duten gutxieneko mailari dagokion lansaria.

Lehenengo bi puntuetan Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak argibide agiri bana atera du kontu horiek konpondu nahi dituelako eta horrela auzitegi medikuei leporatu ahal izateko greba egiten dutela diruagatik.

Benetan gertatzen dena baina, oso ezberdina da:

- Gertaeraren batengatik gaez lanera joan behar baldin badute, hurrengo egunean atsedena hartzen dute beti autopsia laguntzaileek; horrelakoetan, auzitegi medikuak, batzuetan, lan egitera behartzen dituzte.
- Prestakuntza dela eta, gutxi gorabehera 80.000 €ko plana aurkeztu digute baina ez dauka benetako edukirik. Izan ere, ikastaro jakin bat eskatu izan dugunean erantzun digute ez dagoela planaren barruan, planak aurrekontua eduki eta onartuta egon arren edukiez bete behar dela. **Eusko Jaurlaritzari esan diogu harro agertzen duen gardentasuna froga dezala eta azal diezagula zertan gastatu behar duen diru hori. Oraindik ez dugu erantzunik jaso.**

Osakidetzarekiko parekotasuna dela eta, EAJk tematuta segitzen du gure ordainsariak behar bezala. Osakidetzan gutxien kobratzen duen medikuarekin ez parekatzeaz gain, izendapen askez hautatutako karguei igoera itzela egin nahi die, inork horrelakorik eskatu gabe ere. Eusko Jaurlaritzak gatazka honetan duen jokabidearen beste lagin bat.

Gurea ez da errebindikazio ekonomikoa, duintasun eskaera baizik. Hainbat esparrutako espezialista zereginak egiten ditugu, esaterako, ginekologia, psikiatria edo beharrezkoa den beste espezializazio batzuk ere. Dena den, parekidetasunari uko egin eta beste kolektibo batzuekiko gure lana mesprezatzen segitzen du: espetxeetako osagileek Osakidetzako maila bajeunean kokatu zituen Jaurlaritzak eskumenak jaso bezain laster.

Gure aldarrikapenak bloke zatiezina dira eta ez dugu ametituko guretzat zein herritarrentzat engainua lekarkeen proposamenik. Adibidez, hatzamarrez aukeratutako karguak diruz saritzea edo zergapekoen dirua xahutzea prestakuntza plan ilunetan.

Eusko Legebiltzarraren agindua betetzeko eskatu diogu Justizia Sailari: EH-Bildu, PSE-EE eta PPK eskatu zioten Jaurlaritzari auzitegi medikuak behingoz parekatzeko. Hala ere, EAJk uko egiten dio Parlamentuaren gehiengoa aurka badu ere. **Zer espero daiteke gobernuan egon arren Eusko Legebiltzarraren agindua bete nahi ez duen alderdi batetik?**

EAJ, ADI, AUZITEGI MEDIKUAK BORROKAN!!!

LAN BALDINTZA DUINAK ETA KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOA